

IKASTETXEKO

HEZKUNTZA

PROIEKTUA

(IHP)

<b>00</b>	<b>SARRERA</b>
-----------	----------------

UROLA IKASTOLA BHI hezkuntza erakundea gara. Urola bailaran kokatutako eta euskarari eta euskal kulturari oinarritutako pertsonak hezi nahi ditugu, inguruko hezkuntza, kultura eta gizarte aritzean jarrera sortzailez eta eraikitzailez parte hartuko dutenak.

Pertsonak hezteko da gure egin beharra, gizarteak une bakoitzean iradoki eta zehazten dituen balio nahiz plangintza sozial, filosofiko, teknologiko, artistiko eta kulturetan, ideia eta balioen eraldaketan aitzindari izatea.

Pertsonak bere osotasunean hezi nahi ditugu UROLA IKASTOLA BHI:

- Heziketa eta irakaskuntza eskainiz (arautua nahiz etengabekoa).
- Gorpuzaren ezagutza eta trebakuntza landuz.
- Ikasleen adimena eta gaitasun intelektuala garatuz eta hainbat irteera bultzatuz.
- Ikasleen sentimendu, pentsaera eta izaera landuz.

Ikaslearen gizarteratzean era kritikoa eta solidarioan lagunduz

**IKASTETXEKO HEZKUNTZA PROIEKTUAK** honako ildok jorratuko ditu:

- 01. *Aniztasuna eta giza eskubideetan oinarritutako balio demokratikoak***
- 02. *Euskal Herriko hezkuntza eta kultura***
- 03. *Heziketa prozesu integrala.***
- 04. *Kudeaketa sistema.***
- 05. *Unibertsaltasuna Euskal Herria barnean.***

Ikastetxeko Hezkuntza Proiektua (IHP) honako hauen bidez garatuko da:

- Ikastetxeko Curriculum Proiektua (ICP)
- Ikastetxeko Hezkuntza eta Kultura Proiektua (IHKP)
- Antolamendu eta jardueraren araudia (AJA)

01

**ANIZTASUNA ETA GIZA ESKUBIDEETAN  
OINARRITUTAKO BALIO DEMOKRATIKOAK**

- 01-01 Ikastetxe honek ez du arraza, genero, erlijio, politika eta ekonomiazko diskriminaziorik onartzen.
- 01-02 Eskola soziala, pluralista, konpentsatzailea, demokratikoa eta kalitatezkoa, ikasle eta jendartearen zerbitzurakoa nahi dugu.
- 01-03 Ikaslea, zentzu kritiko, erantzule, solidario eta sortzaile egoki batera bideratuko da agintekeriak baztertuz.
- 01-04 Ikastetxe hau erakunde pluralista da, ideia, portaera sozial, politiko, filosofiko eta erlijioso desberdinen elkarbizitzarako errespetu osoarekin.
- 01-05 Ikastetxeko kide guztien harremanetarako ezinbesteko bidea izango da elkarrenganako eta taldearenganako errespetua.
- 01-06 Heziketa ekintzak arrazoitzean eta elkarrizketan oinarritu beharko du, nagusikeriak alde batera utziz.
- 01-07 Solidaritatean, norberaren nahiz bestekiko begirunean, erantzukizunean, ahaleginean eta ondo eginiko lanaren garrantzian oinarritutako heziketari emango diogu lehentasuna.  
Norberaren askatasuna, libreki pentsatu, adierazi eta aukeratzeko askatasuna, bultzatuko dugu.
- 01-08 Hezkidetzan oinarritutako heziketa izango da gure eguneroko jardunaren ardatza, gizon eta emakumeen berezkotasunaren garapena aintzat hartuz, bien eskubideen heziketa bultzatuko duena.
- 01-09 Guraso, ikasle, irakasle eta ez-irakasleen erlijio sinesmenak errespetatuko dira. Erlijio heziketa eskeiniko da, baina berau ez da inoren baztergarri izango eta derrigorrez ez zaio inori ezarriko.

## **02 EUSKAL HERRIKO HIZKUNTZA ETA KULTURA**

- 02-01 Euskara da Euskal Herriko eta ikastetxeko hizkuntza propioa.
- 02-02 Euskal hizkuntzan, kulturean, izaeran, eta nortasunean hezi nahi dugu ikaslea, euskararen eta euskal kulturaren transmisio, garapen eta sustatzearekin konprometituz.
- 02-03 Euskararen normalizazioari dagokionez, gurasoen inplikazioa bultzatuko da, euskararen erabilera eskolaz kanpoko esparruetan ere bultzatuz.
- 02-04 DBH edo DBHO bukatzean, prestatuta egongo dira ikasleak beren aurreranzko ikasketak euskaraz eta gaztelaniaz egiteko.
- 02-05 Heziketa prozesuaren bukaeran, ikasleek euskaraz eta gaztelaniaz izango duten adierazpen maila, gizarte eta eskolako edozein girotan murgiltzeko adinakoa izango da.
- 02-06 Ikastetxearen helburua da gure ikasleek beste hizkuntzak berenganatu eta eraginkortasunez komunikatzeko erabiltzen ikastea.
- 02-07 Euskaraz gain, Euskal Herriko errealitate historiko, kultural, geografiko eta sozialarekin bat letozkeen edukiak landuko dira, baita ingurune zientifiko, teknologiko, ekonomiko eta produktiboekin bat letozkeenak ere.

**03**

## **HEZIKETA PROZESU INTEGRALAK**

- 03-01 Ikastetxe honek heziketa global, kritikoa eta emantzipatzailea emango du. Heziketa hau ikaslearen nortasuna osatzen duten alderdi guztiak hartzen dituen ekintza bezala ulertzen du
- 03-02 Bere gorputza ezagutzera eta trebatzea landu eta bultzatuko ditu, norberarekiko ziurtasun handiagoa izan dezan. Alderdi motoreak ez ezik, gizakiaren alderdi biologikoak, emozionalak eta psikologikoak. Halaber, sexualitatea eta osasuna ere landuko dira. Neska-mutilen desberdintasunak kontuan hartuko dira, aniztasuna aberasten duen ezaugarri baitira
- 03-03 Ikaslearen adimena eta gaitasun intelektualen garapena bultzatu eta indartuko ditu.
- 03-04 Ikaslearen alderdi emozionalak eta pertsona izaerak errespetatuko dira.
- 03-05 Ikastetxeak ikaslea gizarteko kide bezala garatzen lagunduko du.
- 03-06 Ikastetxe honen ekintza metodologikoa ikasle bakoitzaren gaitasun eta eboluzio desberdinetara egokitzen den harreman pertsonalizatu batean, batez ere premia bereziak dituztenengan, oinarrituko da.
- 03-07 Ikaslea, progresiboki eta era eraikitzaile batean, bere ikasketa prozesuaz arduratuko da. Honetarako, etengabeko berrikuntzan oinarritutako pedagogiaz, jakinduria hutsezko heziketa soilak gaituz, hezkuntza aktiboa bultzatuko da.
- 03-08 Ikasleak irizpide propio batez erabakiak hartzeko ahalmena eta erabaki horien erantzule izateko jarrerak bultzatuko dira.
- 03-09 Ikaslearen joera sortzaile eta kritikoa bultzatuko da eskolako eta eskolaz kanpoko ekintzetan.
- 03-10 Ikastetxeak, ikasleak hautaketa akademiko edota laborala egiterakoan, ikasleari beharrezko informazioa eta orientazioa eskainiko dio.

**UROLA IKASTOLA BHI**

*Ikastetxeko Hezkuntza Proiektua*

03-11 Guraso, ikasle, irakasle eta ez-irakasleek bizikidetasun eta partaidetasunezko harremanak bideratuko dituzte eguneroko jarduera pedagogikoan.

**04**

**KUDEAKETA SISTEMA**

- 04-01 Ikastetxeko partaideen artean aurki daitezkeen joera anitzak bideratzeko elkarren arteko kudeaketan oinarritutako xedeak landuko dira.
- 04-02 Aipatu autonomia konpartitua ahalbideratzeko, elkarrizketa, partaidetza, erantzukizuna eta gardentasuna izango dira oinarri, bai erabakiak hartzerakoan, bai indarrean jartzerakoan baita kudeatzerakoan ere.
- 04-03 Funtzionamendu eta kudeaketa egitura bizkor eta dinamikoaren beharra dugu, jendarteari eta egiturari dagozkion arazoak arin eta egoki kudeatzeko.
- 04-04 Ikastetxearen Hezkuntza Proiektuak (IHP) ahalbideratuko duen autonomia izango du zentroak maila pedagogikoan, antolaketakoan nahiz ekonomikoan.
- 04-05 Gurasoak, ikasleak, irakasleak, ez-irakasleak, Administrazioko ordezkariak, denek parte hartuko dute beronen kudeaketan eta aktiboki lagundu berorren funtzionamenduan.
- 04-06 Ordezkaritza Organo Gorena (OOG), nahiz dagozkion batzorde laguntzaileak, demokratikoki hautatuko dira, guraso, ikasle, irakasle, ez irakasle, Administrazioko ordezkarien artean.

**05 UNIBERTSALTASUNA EUSKAL HERRIA BARNEAN**

- 05-01 Gure inguruko gizarteaz eta naturaz, ikuspegi kritiko batez, elkarbideraturiko heziketa bultzatuko da.
- 05-02 Etengabeko prestakuntzen bidez, egungo gizartean ematen diren era guztietako aldaketei aurre egitea ahalbidetuko dien heziketa landuko da.
- 05-03 Ikasleak herrialde eta herri guztietara zabalik legokeen Euskal Herrian txertaturiko giza komunitatean garatuko ditu bere gaitasunak. Euskal Herriko errealitate lurraldetar, historiko, sozial, politiko, ekonomiko eta kulturalarekiko barnekidetasuna landuko delarik
- 05-04 Norberarekin, inguruko eta nazioarteko komunitateko gainontzeko pertsonekin, herriekin, kultura desberdinekin eta naturarekin jarrera etikoak nahiz estetikoak bultzatuko dituen balore sistema berritzaileak landuko dira.
- 05-05 Gure ikastetxeak, bere ingurutik abiatuz, arazoak elkar lotzen dituen eta era konplexuan interpretatzen dituen osotasunezko ikuspegia du. Ikuspegi honen ardatz nagusiak hauek lirateke: genero bereizketarik gabeko eskola, solidarioa, kooperatzailea, homogeneizazio sistemekin kritikoa (kulturala, politikoa, ideologikoa...) sektore marjinatuekin konprometitua, askatasunean eta askatasunetik hezten duena eta gizarte eraldaketa nahi nabaria duena.
- 05-06 Balio unibertsalez blaitutako mundu mailako hiritar ikuspegia lortzeko bideak jarri nahi ditugu. Gure inguru hurbiletik abiatuz eta beronekin konprometituz, nazioarte maila solidarioagoa duen jendarte berri bat, herri guztien anaitasuna ez ezik, munduko habitat eta bizidun guztiena ere bideratu nahi da
- 05-07 Europako hiritar bezala, zein mundu global honetan, ikasi, lan egin eta bizitzeko gai izan daitezken ikasle kritiko eta euskaldun eleanitzak prestatu nahi ditugu.